



IBON BEHINGOZ KALERA!

KONTZENTRAZIOAK

URRIAK 18
ASTEAZKENA 19:00
EPAITEGIEN AURREAN

ARABA: GASTEIZ
BIZKAIA: BILBO · BARAKALDO
GETXO · GERNIKA · DURANGO
GIPUZKOA: DONOSTIA · TOLOSA
AZPEITIA · EIBAR · IRUN · BERGARA
NAFARROA: IRUÑEA
TUTERA · TAFALLA

KALERA!
BAKEA ETA ASKATASUNA IRABAZTERAI

Preso gaixo larrien askatasuna eskatuko du Hego Euskal Herriko eskualde buruko epaitegietan, elkarretaratzeen bitartez, Ibon etxera bizirik ekartzea guztion ardura delako. LABek bat egin du deialdiekin.

Haxe da Kalera Kalera plataformaren oharra:

Espainiako espetxe politika kriminala Ibon Iparragirre preso politikoa hiltzen ari da. Ibonek hiesa dauka. Atxilotu eta Sevilla II espetxera urrundu zutenean bere karga birala zortzikoiztu egin zitzaion. 2011n, bere osasun egoera larriaren ondorioz, espetxe araudiko 100.2 artikulua ezarri zioten. Artikulu horren arabera espetxe arindua ezarri zioten eta horrek espetxealdia bere

etxean betetzea ahalbidetu zion. 2014an, modu erabat bidegabea erabiliz, berriro espetxeratu zuten. Orduz geroztik, Ibonen egoera muturrekoaren ondorioz, behin baino gehiagotan piztu da alarma gorria; azkena, maiatzean urjentziaz Madrilen ospitaleratu zutenekoa.

Madrilgo ospitalean egindako azken analitikaren arabera, Ibonek 20 defentsa baino ez ditu (pertsona osasuntsu batek 723-1.124 artean dituenean). 2011n, espetxealdi arindua ezarri ziotenean, bere defentsen analitikak 51 adierazten zuen, hau da, Ibon edozein unetan hiltzeko arriskuan bizi zela. Beraz, agerikoa da Ibon tratu krudela pairatzen ari dela, krudela eta utzikeria handikoa. Egoera horren arduradunak espetxe, justizia eta osasun estamentu zehatzak dira; espetxe zaintzako epailea, Alcala-Meco espetxeko zuzendariorde medikua eta Alcala-Meco espetxeko zuzendaria.

Mediku forentseak jada azaldu dionez, Ibonek edozein infekzio harrapatuz gero, hilketan itzuliko da bere herrira. Edozein momentutan hil daitekeela, alegia.

Gaur egun, Ibon libre uzteko erabakia Castro epailearen eta Alcala Meco-ko espetxeko medikuaren esku dago. Biak ala biak, preso ondarrutarra lehenbailehen askatu ezean, iragarritako heriotza baten arduradunak izango dira.

Nahikoa da! Ezker abertzalearen KALERA KALERA dinamikak ozen salatzen du Iparragirreren aurkako tratu anker eta gizagabea; izan ere, bere bizitza arrisku larrian egonik, espetxean mantentzen duten bitartean heriotz-zigorrera kondenatzen ari dira.

Hori guztia salatzeko eta preso gaixo larrien askatasuna exijitzeko, datorren asteazkenean, urriaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, kontzentrazioak burutuko ditugu Hego Euskal Herriko eskualde buruko epaitegietan. Ibon etxera bizirik ekartzea guztion ardura delako, mobiliza gaitezen denok.

- Bizkaian: Bilbon, Barakaldon, Getxon, Gernikan eta Durangon
- Gipuzkoan: Donostian, Tolosan, Azpeitian, Eibarrren, Irunen eta Bergaran
- Araban: Gasteizen
- Nafarroan: Iruñean, Tuteran, eta Tafallan

Herri honek bakea eta askatasuna nahi eta behar dituelako, euskal preso politikoak KALERA!
Ibon Iparragirre KALERA!

—